



3HI-106/07-P05-A

MERCEDES IZQUIERDO FERNÁNDEZ,  
EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN  
ANTOLAMENDURAKO  
BATZORDEAREN GIPUZKOAKO  
HIRIGINTZA PLANGINTZAKO ATALEKO  
IDAZKARIAK

MERCEDES IZQUIERDO FERNÁNDEZ,  
SECRETARIA SUPLENTE DE LA  
SECCIÓN DE PLANEAMIENTO  
URBANÍSTICO DE GIPUZKOA DE LA  
COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL  
TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

ZIURTATZEN DUT: Otsailaren 7an  
Gipuzkoako Hirigintza Plangintzako  
atalak egindako 1/2008 bileran, kideen  
gehiengo absolutua osatzen zuten  
bertaratuek aho batez, besteak beste,  
ondorengo hau erabaki zutela:

CERTIFICO: Que, en la Sesión  
1/2008 de la Sección de Planeamiento  
Urbanístico de Gipuzkoa, celebrada el día  
7 de febrero, se adoptó por unanimidad  
de los asistentes que conformaban la  
mayoría absoluta de sus miembros, el  
siguiente acuerdo:

I. Lurralde Antolamenduari dagokionez:

"I.- En materia de Ordenación del Territorio:

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006  
Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko  
Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren  
31ko 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidego  
Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde  
Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen  
arteko harremani buruzko ekainaren 16ko  
5/1993 Legea aldatzen duen Legean  
ezarritakoaren arabera, RC.5 "Euskal Herria  
Plaza" areari dagokionez Tolosako udalerriko  
Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa  
zehatzaren espedientea onartzeari ez zaio  
eragozpenik jarriko.

No poner objeción a la aprobación del  
expediente de Modificación Puntual de las  
Normas Subsidiarias de Planeamiento  
Municipal de Tolosa referida al Área RC.5  
"Plaza Euskal Herria", desde los aspectos  
cuyo carácter de informe es vinculante de  
acuerdo con lo señalado en la Ley 2/2006 de  
Suelo y Urbanismo, en la Ley 4/1990, de 31  
de mayo, de Ordenación del Territorio del  
País Vasco; y en la Ley 5/1993, de 16 de  
julio, de Modificación de la Ley de Relaciones  
entre las Instituciones Comunes de la  
Comunidad Autónoma y los Órganos Forales  
de los Territorios Históricos.

II. Kultura Ondareari dagokionez:

II.- En materia de Patrimonio Cultural:

Euskal Herria plaza, lehenago Justizia  
plaza izenekoa, monumentu historiko-  
artistiko izendatuta dago Hezkuntza  
Ministerioaren 1964ko urtarrilaren 17ko  
Aginduaren bidez adierazitakoan oinarrituta  
(1964ko otsailaren 29ko BOE). Euskal  
Kultura Ondareari buruzko 7/1990  
Legearen Lehen Xedapen Gehigarriaren  
arabera, eraikin horiek Kultura Ondasun  
Kalifikatutzat joko dira, Monumentu  
kategoriarekin, eta horiei aplikatzeko den  
babeserako araubide juridikoaren mende  
geratuko dira.

La Plaza Euskal Herria, anteriormente  
conocida como Plaza de Justicia, se  
encuentra declarada Monumento de interés  
histórico-artístico en base a la declaración  
del Ministerio de Educación mediante  
Orden de 17 de enero de 1964 (B.O.E. de  
29 de febrero de 1964). A tenor de la  
Disposición Adicional Primera de la Ley  
7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco,  
estos inmuebles pasan a tener la  
consideración de Bien Cultural Calificado,  
con la categoría de Monumento, quedando  
sometido al régimen jurídico de protección  
aplicable a los mismos, en cuanto a  
Delimitación y Régimen de Protección.

Beraz, aipatutako babes-araubidea idazten  
den artean, elementu horretan onartutako

Por lo tanto, hasta que no sea redactado el  
mencionado régimen de protección, se



esku-hartzeek bere balio guztien zaintza egokia segurtatu behar dutela gogorarazi behar da, Leheneratze Zientifikoaren arloko esku-hartzeen bidez, Ondare Urbanizatua eta Eraikia birgaitzeko esku-hartze babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren "Birgaitzeko esku-hartzeak" I. Eranskinean zehazten den bezala.

III. Espedientea behin betiko onartzeko eskumena duen organoari ziurtagiri honi gaineratzen zaion Kultura Ondarearen Zuzendaritzak igorritako txostena (I. Eranskina) helaraziko zaio.

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2008ko otsailaren 8an.

recuerda que las intervenciones permitidas en este elemento deben asegurar la correcta preservación de todos sus valores mediante intervenciones constructivas de Restauración Científica, tal y como se definen en el Anexo I "Intervenciones de Rehabilitación" contenido en el Decreto 317/2002, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado.

III.- Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente el informe emitido por la Dirección de Patrimonio Cultural (Anexo I) que se acompaña a la presente certificación."

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 8 de febrero de 2008.

ORDEZKO IDAZKARIA/ LA SECRETARIA SUPLENTE

Sin.: Mercedes Izquierdo Fernández.: Fdo